

/2021 FORU AGINDUaren proiektua, aren (e)koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana. Foru agindu horren bidez ezartzen da Elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zergapekoen erroldaren egitura eta funtzionamendua, onesten da "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" 560 eredu, eta ezartzen da autolikidazio hori aurkezteko forma eta prozedura.

Besteak beste, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea aldatu zuen azaroaren 27ko 28/2014 Legeak aldaketa nabarmena ekarri du elektrizitatearen gaineko zergaren kontzeptuan. Izan ere, fabrikazioaren gaineko zerga berezi bat izateari utzi dio, eta, geroztik, kontsumorako energia elektrikoaren hornidura edo energia elektrikoaren ekoizleek beraien sortzen duten elektrizitate kontsumitzen dutena kargatzen duen zerga bat izatera igaro da.

Zergaren kontzeptu-aldaketa honek eskatu zuen zergaren autolikidaziorako eredu berria onestea, zeinetan bilduko baitziren konfigurazio berrian zergak indarra hartzeko beharrezkoak diren aldaketak. Hala, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren otsailaren 16ko 41/2015 Foru Aginduaren bidez onetsi zen "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" 560 eredu.

2015eko urtarrilaren 1ean sartu zen indarrean eta orduetik hona elektrizitatearen gaineko zerga berezia erregulatzen duen araudiak aldaketa asko izan ditu. Besteak beste, salbuespen-kasuak, murriztapen-kasuak eta zerga-tasa aldatu dira. Halaber, murriztapenak aplikatzearen, lurralde erregistroan inskribatzearen, eta zergaren likidazioaren eta ordainketaren gaineko aldaketak. Horrek guztiak arrazoitzen du "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" 560 eredu berri bat onetsi beharra.

Horretaz gainera, foru agindu honetan formatu elektronikoa onetsi da agiri hauetarako: lurralde erregistroan inskribatzeko eskaera, onuradunek kudeaketa bulegoari egin beharreko komunikazioak, eta autolikidazio eredu, Nafarroako Foru Ogasunaren web orriaren bidez aurkezteko.

2021eko urriaren 1a baino lehenagoko likidazio-aldiei dagokienez, epez kanpoko aitorpenak, aitorpen osagarriak edo aitorpen zuzentzaileak modu berezian aurkezteko, herritarren eskura segituko du Nafarroako Foru Ogasunaren web orrian otsailaren 16ko 41/2015 Foru Aginduaren bidez onetsi zen 560 ereduak.

Nafarroak foru agindu hau onesteko duen eskumena Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoan oinarritzen da. Hitzarmen Ekonomikoaren 35.5 artikuluan eta laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat, Foru Komunitateari dagozkion zerga berezien ordainarazpenean, Estatuko lurraldean unean-unean indarra duten oinarrizko printzipioak, arau substantiboak eta formalak aplikatuko ditu, eta, zerga berezien arloko arau propioak eman arte, honakoak aplikatuko dira Nafarroan: Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legea, eta Zerga Berezien Erregelamendua, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuaren bidez onetsitakoa.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren zazpigarren xedapen gehigarrian baimena ematen zaio zerga arloko eskumena duen departamentuko kontseilariari foru agindu bidez arautu dezan zergadunek eta entitateek zein kasu eta baldintzatan aurkezten ahal dituzten baliabide elektroniko, informatiko eta telematikoen bitartez aitorpenak, komunikazioak, aitorpen-likidazioak, autolikidazioak edo tributuen arloko araudiak eskatutako beste agiri guztiak.

Horrenbestez,

AGINTZEN DUT:

1. artikulua. Lurralde erregistroan inskribatzea.

1. Foru agindu honen bigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa gorabehera, elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zergapeko hauek eskatu beharko diote zerga berezien kudeaketa bulegoari dagokion lurralde erregistroan inskribatzeko; bulego hori izanen da jarduera egiteko erabiltzen den establezimenduari dagokiona edo, besterik bada, establezimendu horren helbide fiskalari dagokiona:

a) Zerga honen zergadunak.

b) Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 94. artikuluko 5., 6. eta 7. apartatuetan ezarritako salbuespenen onuradunak.

c) Abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 98.1 artikuluan xedatutako murriztapenen onuradunak. Uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsi zuen Zerga Berezien Erregelamenduaren 145.1 artikulua arabera, nekazaritzako ureztaketarako elektrizitatea kontratu bidez hornitzen bada eta kontratu horren titularra ureztatzaile elkarte bat edo konfederazio hidrografiko bat bada, elkarteak edo konfederazioak eskatu beharko du dagokion lurralde erregistroan inskribatzeko.

d) Zergadunen ordezkariak (Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 102.4 artikulua).

2. Aurreko apartatuan aipatutako zergapekoek inskripzio eskaera bat aurkeztu beharko dute eta hari dokumentazio hau erantsi:

a) Ordezkaritza egiaztatzen duen dokumentazioa, zergapekoak ordezkari baten bitartez jarduten badu.

b) Garatu beharreko jardueraren azalpen-memoria, zeinagatik inskripzioa eskatzen baita. Halaber, jarduera horren Ekonomia-jardueren gaineko Zergaren epigrafea zein den adieraziko da.

c) Jarduera gauzatzen den establezimenduaren identifikazioa eta deskribapena.

d) Sektore elektrikoaren berariazko araudian eskatutako baimenak, inskribatu nahi den jarduera gauzatzeari lotuta baldin badaude.

e) Energia elektrikoa ekoizteko instalazioan instalatutako potentzia egiaztatzen duen dokumentazioa, inskripzioa abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 94.5 artikuluan xedatutako salbuespenerako eskatzen bada.

Lurralde erregistroan inskribatzeko eskaera elektronikoki aurkeztuko da Nafarroako Foru Ogasunaren web orriaren bidez.

3. Inskripzioa egin behar duten zergapekoen artean, 1. apartatuko b) eta c) letretakoek, beren instalazioetan elektrizitatea sartzeko puntuak badituzte, energia elektrikoaz hornitzeko puntua edo puntuak zein diren komunikatu beharko dute, hornidura-puntuaren kode unibertsalaren (CUPS) bitartez. Salbuetsita daude energia elektrikoa garraiatu eta banatzeko instalazioen titularrak.

Jardueren araberako banakako hornidura-punturik ez badute, eskaeran zehaztu beharko dute hornidura bakoitzean kontsumituko den energia elektrikoaren ehunekoa, onura fiskala aplikatzeko baldintzak betetzen dituen jarduerari dagokionez.

4. Eskaera hartu eta behar den espedientea tramitatu ondoren, kudeaketa bulegoak erabakiko du, hala badagokio, zergaren lurralde erregistroan inskribatzea.

Inskripzioaren erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, harekin batera, inskripzioa egiaztatzen duen txartela igorriko zaio (hartan elektrizitatea identifikatzeko

kodea (EIK) agertuko da). Aipatutako txartela hornitzaileari erakutsiko zaio zergaren araudiak hala egitea eskatzen duen kasuetan, hornidura behar den onura fiskala aplikatuz gauzatzeko.

Onesten da lurralde erregistroko inskripzio txartelaren eredia (Foru agindu honen I. eranskinetako da).

5. Kudeaketa bulegoari egin beharreko komunikazioak eskaera bidez egingen dira, elektronikoki, Nafarroako Foru Ogasunaren web orriaren bidez, uztailaren 7ko 1165/1995 Errege Dekretuak onetsitako Zerga Berezien Erregelamenduaren 144. eta 145. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz.

Bereziki, txartel baten titularrak kudeaketa bulegoari adierazten badio egiazki kontsumitutako energia elektrikoaren kopurua aldatu dela, salbuespenerako edo murriztapenerako eskubidea duena, kudeaketa bulegoak txartela berrituko du komunikatutako datu berri horiekin.

2. artikulua. Elektrizitatea identifikatzeko kodea.

1. Elektrizitatea identifikatzeko kodearekin (EIK) identifikatzen dira elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren lurralde erregistroan inskribatutako zergapekoak.

2. Kodeak hamahiru karaktere izanen ditu, honela banatuak:

a) ES letrak izanen dira lehen bi karaktereak.

b) Hirugarren, laugarren eta bosgarren karaktereak zeroak izanen dira, beste karaktere batzuek ordezkatzea erabakitzen ez den bitartean.

c) Seigarren eta zazpigarren karaktereak identifikatzen dute kudeaketa bulegoa, zeinetan egin baita inskripzioa lurralde erregistroan.

d) Zortzigarren eta bederatzigarren karaktereak jarduera identifikatzen dute.

e) Hamargarren, hamaikagarren eta hamabigarren karaktereak inskripzioaren zenbaki sekuentziala adieraziko dute, jarduera bakoitzaren barnean, kudeaketa bulegoari dagokion lurralde erregistroan.

f) Hamahirugarren karakterea kontrolerako letra bat izanen da.

3. Zergapekoek jarduera bezainbat EIK izan beharko dituzte eta, hala badagokio, beren jarduera garatzeko erabilitako establezimendu bezainbat.

4. Onesten dira elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren jarduera-gakoak, 2.d) apartatuan aurreikusitakoak eta foru agindu honen II. eranskinean ageri direnak.

3. artikulua. 560 eredia onestea.

Onesten da "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Likidazioa" 560 eredia. Elektronikoki aurkeztuko da, Internet erabiliz, foru agindu honen 6. eta 7. artikuluetan ezarritako baldintza orokorrei eta prozedurari jarraikiz.

4. artikulua. 560 eredia aurkeztera behartuak daudenak.

560 eredia aurkeztera_eta, hala badagokio, zerga-zorra ordaintzera behartuta daude Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 96. artikuluan ezarritakoaren arabera elektrizitatearen gaineko zerga bereziaren zergadun direnak.

96. artikuluko 1. eta 4. apartatuetan araututako zergadunek 560 eredia aurkeztu beharko dute, edozein izanik ere likidazioaren emaitza. Aldiz, merkaturatzaile edo banatzaile ez direnak ez daude behartuak eredu hori aurkeztera sartzeko kuotarik ez duten likidazio-aldietan.

5. artikulua. 560 eredia aurkezteko epeak.

Kasuan kasuko likidazio-aldia bukatzen den egunetik hasita, zergadunek hogeit hamar egun naturaleko epea izanen dute 560 eredia aurkezteko eta, hala badagokio, zerga kuota Nafarroako Foru Ogasunean sartzeko.

Zergaldia urtea baldin bada, abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 96.3 artikuluan aipatzen diren zergadunek likidazio-aldi hori bukatu eta hurrengo apirileko lehenengo hogeit hamar egun naturaletan aurkeztu beharko dute autolikidazioa.

6. artikulua. 560 ereduaren aurkezpen elektronikoa (Internet bidez) egiteko baldintza orokorrak.

1. 560 ereduko aitortpenen aurkezpen elektronikoa baldintza hauei jarraikiz eginen da:

a) Aitortzaileak identifikazio fiskaleko zenbakia eduki beharko du (IFZ).

b) Aitortzaileak eduki beharko du identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema bat, ziurtagiri elektroniko aitortu bat erabiltzen duena eta Nafarroako Foru Ogasunak onartzeko modukoa izan behar duena, arloan indarra duen legediarekin bat etorritz.

Ziurtapen zerbitzuen emaileak eta baimenduta dauden ziurtagiri elektronikoak Nafarroako Foru Ogasunaren web orrian daude zerrendaturik, Interneteko helbide honetan: <https://hacienda.navarra.es>.

c) Aitorpenak hirugarrenak ordezkatzuz egiteko baimenduta dagoen pertsona edo entitate bat baldin bada aurkezlea (Aitorpenak hirugarren pertsonak ordezkatzuz telematikoki aurkezteko kanpo-lankidetzarako akordioa onesten duen ekainaren 29ko 130/2009 Foru Aginduan xedatutakoarekin bat), b) letran adierazitako_ziurtagiri elektronikoa aitortu bat eduki beharko du.

d) Zergapekoak pertsona fisikoak direnean, Cl@ve sistema erabiliz ere egin daiteke aurkezpena, zeina identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoaren sistema baita, amankomuna dena Estatuko Administrazio Sektore Publiko osorako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako eta harekin bat egiten duten beste autonomia erkidego eta toki entitateetarako, eta araututa dagoena PRE/1838/2014 Aginduan. Hari esker, herritarrak harreman elektronikoa izan dezake zerbitzu publikoekin gako itunduen bidez, hartan erabiltzaile gisa izena eman ondoren.

e) 560 ereduaren aurkezpen elektronikoa egiteko, aitortzaileak edo baimendutako aurkezleak, halakorik bada, Nafarroako Foru Ogasunaren atarian eskuragarri dagoen web inprimakia erabili beharko du.

f) Aitortzaileek aurkezpen elektroniko hori egiteko eskatzen diren arau teknikoak bete beharko dituzte. Arau horiek Nafarroako Foru Ogasunaren web-orrian daude ikusgai, Interneteko <http://hacienda.navarra.es> helbidean.

2. Bat etorritz Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretuaren 14.3 artikuluan xedatutakoarekin, aurreko apartatuan ezarritako identifikazio sistemak sinatzeko sistema gisa erabiliko dira.

<https://hacienda.navarra.es> helbidean edukiko da aurkezpen elektronikoa gaituta duten zerga-betebeharren zerrenda eguneratu bat, eta zehaztuko da aurkezpen modu hori zeinetan den gaituta dagoen bakarra.

3. Bide elektronikoa erabiliz igortzen diren aitortenetan akats formalen bat antzematen denean, sistemak berak emanen dio horren berri aitortzaileari errore-mezuen bitartez, behar diren zuzenketak egin ditzan.

7. artikulua. 560 ereduaren Internet bidezko aurkezpen elektronikoa egiteko prozedura.

1. Aurkezpen elektronikoa Internet bidez egiteko, web inprimakia erabiliz, prozedura hau erabiliko da:

1. Nafarroako Ataritik, Ogasunarekin egiten diren izapideen zerbitzuan sartu.

2. Egin nahi den aitortenaren eredia hautatu, eta aitortpena aurkeztu ahal izateko datu guztiak bete.

3. Aitortpena bete ondoren, igortzeko aukera erabili. Aitortpena zuzen egina bada, sistemak balidatuko du.

2. Akatsik antzemanaz gero, datu-orriaren bidez emanen da horren berri, eta haiek zuzendu arte ezin izanen da aitortpena aurkeztu. Aitortpena zuzen bete ondoren, sistemak komunikatuko du aurkeztutako aitortenari esleitutako zenbakia, eta, orobat, inprimatzeko aukera eskainiko du, frogagiri gisa erabiltzeko.

3. Zergadunek 560 eredu bat aurkeztu eta, hala badagokio, zerga-zorra ordaindu beharko dute, jarduera gauzatzeko erabilitako establezimendu bakoitzeko. Aurkezpena egingen da eta, hala badagokio, zerga-zorra ordainduko lurraldeari dagokionez eskumena duen zerga administrazioaren aurrean. Zergadun batek hornidurak egiten baditu administrazio baten baino gehiagoren eskumeneko lurraldeetan, administrazio horietan guztietan egin beharko du inskripzioa.

Lehen xedapen gehigarria. Elektrizitatea identifikatzeko kodeak (EIK) ofizioz bihurtzea.

Foru agindu hau aplikatuz, elektrizitatea identifikatzeko kode aktiboak aldatu behar badira, kudeaketa bulegoak ofizioz egingen ditu behar diren jarduketak eta, hala badagokio, aurreko txartelak ordezkatzeko beste inskripzio txartel batzuk emanen ditu.

Bigarren xedapen gehigarria. Lurralde erregistroan inskribatzeko eta 560 eredia zerga administrazio batean baino gehiagotan aurkezteko beharra.

Zergadunek lurralde erregistroan inskribatzeko eskaera eta 560 eredia aurkeztu beharko dituzte lurraldeari dagokionez eskumena duen zerga administrazioaren aurrean.

Lurraldeari dagokionez eskumena duten zerga administrazioak bi edo gehiago badira, Zerga Bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen 96.1.a) artikuluan ageri diren zergadunek bete beharko dituzte administrazio horietako bakoitzaren aurrean inskribatzeko eta aurkezteko beharrak, energia elektrikoaren hornidura non egiten den haietan.

Xedapen iragankor bakarra. 2021eko urriaren 1a baino lehenagoko aldiatarako 560 eredia.

2021eko urriaren 1a baino lehenagoko likidazio-aldiei dagokienez, epez kanpoko aitorpenak, aitorpen osagarriak edo aitorpen zuzentzaileak modu berezian aurkezteko, Nafarroako Foru Ogasunak aurkezpen bereizi bat gaituko du web orrian, zeinetan eskuragarri izanen baita foru agindu honek indarra hartzen duenean indarrean zegoen eredia.

Xedapen indargabetzaile bakarra. Arau-indargabetzea.

Foru agindu honek indarra hartzen duenean, indarrik gabe geldituko dira bi foru agindu hauek: 41/2015 Foru Agindua, otsailaren 16koa, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak emana, "Elektrizitatearen gaineko zerga berezia. Autolikidazioa" 560 eredia onetsi, eta hura aurkezteko modua eta prozedura ezartzen dituena, eta 85/2007 Foru Agindua, martxoaren 21ekoa, Ekonomia eta Ogasun kontseilariak emana. Haren bidez onetsi ziren "Aitorpen-likidazioa. Elektrizitatearen gaineko zerga" 560 eredia multzoka aurkezteko fitxategietako erregistroen diseinuak.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, eta 2021eko urriaren 1etik aurrera egiten diren sortzapenei aplikatuko zaie.

Iruñean,

EKONOMIA ETA OGASUNEN KONTSEILARIA

Elma Saiz Delgado